

Laboristak erreinu batuan agintari

Konserbadoreak esaten dute: laboristak pentsatu DEZALETA TA GUK GOBERNATUKO DOGU

Zuek pentsatu ta guk gobernatu.

Ori da aspalditik konserbadoreak esaten dutena laboristen gainean itzigiten dutenean ta ori da konserbadoreak jendearen buruan sartu nai dutena. Konserbadoreak ueste dute berak dirala Jainkoa'ren erabakiaz gobernatzeko jaiok; onela pentsatzea konserbadoreak ez da batera aritzekoa, baiñan okerrera, jende askok eta beartsuen artean ere bai orrela pentsatzea da. Zer-

gaietik ba esaten dute konserbadoreak pentsatzeko lanak laboristenak dirala? Auek beti doktrinario batzuek bezala idealista xamarrak izan diralako. Idealista xamarrak, izan ere ingeles batetzaz ez baidago esaterik oso osorik idealista daniak. Laboristak beti programa aundiak egin izan dituzte eta askotan konserbadoreak agintaritzan zeudelarik bete dituzte programa oiek. Onela poliki poliki bi partiduen arteko diferentziak gutxitzen joan

dira ta gaur egunean esan ditek gai gaienetan bi partiduak berdin pentsatzen dutela.

Eskubi ta ezkerreko partiduen artean asko erabili izan dan gaia da au. Eskubi-zaleak beti esan izandu dute ezker-zaleak ez dutela gobernatzeko balio. Onela zio aspaldi batean Frantzia'ko Diru gaietako ministro zan radikal batek: «Biotza ezkerrean dut baiñan ministerioko kartera eskubitan daramakit»

Laboristak Konserbadorei: zuek afizionatuak besterik ezterate.

Laboristak esaten dutenez ingelese ekonomia konplikatuagia da konserbadoreen eskuetan uzteko. Gaiñera gertakizun batek lagundu die asko laboristei: lengo lehen ministroak, konserbadoreen buru zan Sir Alec Douglas-Home'k ekonomi gaietan geiegi ez jakiteak. Ta ori lehen ministro izandakoak berak aitortzen du. Wilson ordea, oraingo lehen ministroa, oso ekonomista ona da. Oxford'eko umbersidadean ikasia ta ekonomi gaietan asko balio duana. Laboristak bere kanpaña guztia konserbadoreak «amateur» batzuek besterik ez dirala adierazi naiean egin dute. Ta gaiñera Wilson'en gainean itzeginaz, partiduaren gainean itzegin bearean.

Politikaren personalizazioa.

Erreinu Batutako elezioak, beste gertakizun askoekin batera, ori adierazten ditute. Gaurko demokrazietan gero ta geiago jendeak ez du pentsatzen partidu bat aukeratu duanik gobernurako, gizon bat edo bestea baizik. Eta Erreinu Batuan lengo aldiz egin diran orain elezioak partidu baten gainean baiño geiago gizon baten gainean Wilson edo Sir Home'n gainean pentsatzen.

Orrek esan nai du ez dala Erreinu Batuen Parlamentua ueste duen gutuzelakoa. Lengo ikasten zanez Ingelesen Parlamentuan etzan gobernu agintari, legegille ta gobernuille ziran diputaduak baizik. Baiñan... gero ta geiago agintarizata, gobernu sendotzen dioja. Gobernu maioriagandik sortzen da ta maiori ori duan ezkerzotik ez du ainbeste zalantzarik eta bildurrik



Sir Alec Douglas-Home, orain arteko lehen ministro ta konserbadoreen buru dana,

bidaliko dutenik. Orregatik ekilla (eiekutikoa esaten dana) indartzen dioja ta legegillea gaitzen. Gaiñera partidu guztiak eta orragatik ingeles guztiak badakite partidu batek irabazten baldin badu nor izango dan lehen ministro. Orregatik jendeak askotan, bakoitzak ez du botua ematen bere lekuko kandidato liberal, laborista edo konserbadorearentzat, berak lehen ministro bezela ikusi nai duanarentzat baizik.



Wilson telebistan itzigiteko prestatzen.

Gaurko Europa'ko demokraziaren barruan ikusten dan joera oni politikaren personalizazioa deitzen zaio.

Ingelesen moduko sozialismoa.

Ori da benetan laborismoa, Labour Party delakoa. Eta gaur egunean bakarrik, ez asiera aseratik era orixe bere izandu zan.

Erreinu Batutako laborismoaren sortzeak bi iturri ditu: intelektuallak eta langilleen sindikatoak.

Ba zan pentsalarien elkartasun bat «Fabio-zalen» izena zuana. Nola alabait sozialistak ziran lengo gizaldiaren bukaeran. Nola alabaiteko sozialistak beñiere marxismoa oso osorik ez zutelako onartu. Oien xedea ta jo-muga injustizia menderatzea zan batez ere. Bestetik beñiere langilleen elkartasunak, sindikatoak arkitzen ziran. Bi eratako elkartasun oiek eman zitoten sortzea laborismoari, Labour Party 1900' gn. Andik sei urtetara 1906' gn, izan ziran elezioetan 29 diputadu aukeratu erazi zituzten. Ordu ezkerzotik geinetan elezio bakoitzean diputadu ugartitzen joan diran, 65 1918'gn, 141 1922'gn, 192 1923'gn., urrengo urtean bereganatu zuten lengo aldiz gobernu Mac Donald gobernuaren buru izatera iritzi zanean, 1924'gn urtean elezioak izan ziran berriro ta laboristak galdu egin zituzten 152 diputadubakarrik atariaz 412 diputadu konserbadoreen kontra. Baiñan urrengo elezioetan, 1929'gn, urteko 288 diputadu atara zituzten konserbadoreen 268 diputaduen kontra. Baiñan 1931'go elezioetatik guda bukatu artearaino oposizio egon ziran. Guda bitartean ordea gobernuan egon ziran Churchill konserbadorearen menpean.

Guda ezkerzotik 1951'gn arte konserbadoreak baiño geiago izan zituzten baiñan ordu ezkerzotik 1964'gn arte oposizioan egon dira. Ta urrilla onen amabostean oso eskascan atara dira konserbadoreen aurretik.

Wilson partiduaren benetako buruzagia.

Inglatera'n laborismoa beti zatitua egon da. Bere barruan arkitu diezakegu eskubi aldeko joerak eta ezker aldeko joerak. Joera guzti oiek elkartuta ta batuta edukitzea partidu baten barruan izandu da beti laborismoaren buru izan diranentzat buruko miñk aundiña. Ba dirudi Wilson'ek Gaitsek'len ondorenean buruzagizata artu zuan ezkerzotik partidu guztia bere atzetik daukana ta bere agindua egiteko prest dagona. Orregatik bakarrik meritu aundiak ditu Wilson. Orretzaz gaiñera kapazidade aundi gizona da. Otza, azkarra, zorrotza ta oso langillea. Ikusiko du gu lehen ministro dan onan lur-

tzan duan bere partidu batuta edukitzen. Ez da erreza izango gutxienean.

Ezker partidu guztientzat bezala au da laboristentzat prolemarik aundiña. Ezkerra bere jatorriz zeoro militarren kontrako baida ta orregatik ezin ditu ondo ikusi defendaren prolemak. Baiñan bestaldekik beñiere prolema au ezin ditek alde batera utzi, bakoitzak, nazio bakoitzak, estadu bakoitzak oratan bere burua jokatzan dualako. Nola gauza erabaki?

Bretaña Aundiak ba ditu atomika ta hidrogeno bonbak. Beraz atomikadun estadia da. Moskou'ko tratua gaitz orretaz izenpetu zuana Ipar-ameriketekin eta Errusia'rekin batera. Baiñan gaitz onetan bere indarra Estadu Batuen eta Errusia'ren aldamenen jarrita ez da ezertxo ere ta gaiñera geiegi balio du, geiegi kostatzen dala. Orregatik Wilson eta laboristak aspalditik esanda zeukaten inoiz agintarizata ta gobernura irixten baldin baziran ingeles atomika indar ori alde batera uzituko zutela ta alik eta gero saliatuko zirala N.A.T.O. delakoa indartzen orrela bakarrik lortu ditekela laboristen iritziñan ingelesak bere burua seguridadeari dagokionez seguru edukitzea ta besteetik amerikanoen menpean ez erortzea.

Konserbadoreak ondo baiñan guk laboristak obeto.

Konserbadoreak elezio aurretan ez diru asperu esaten Erreinu Batua ez dala orain baiño obeto beñiere bizi izandu ta ori konserbadoreen gobernu ba ten mendeen gertatuta dala. Ez duala langilleak orain arte ainbeste irabazi ta ainbeste eskubidea izan. Laboristak ez dute ezetik esaten, baiñan gauzak askotaz ere obeto egin zitezkeela bai ordea ta egiteko asmoa dutela ere bai.

NAZIO-ARTEKO UNEA

KRUSCHEV, WILSON ETA MAO

Ba liteke munduko politikari garai berri bat astea. Azkeneko astean gertatutakoak izan ditek garai berri oien asiera. Asi gaitzen gertakizun audienarengandik: Krushev'en errotetaren-gandik.

Krushev'ekin garai bat bukatzen da. Oraindik ez dakigu garbi garbi Errusia'ko agintari berrien joera, ez balditugu ekitan ikusi, baiñan ala ere esan dezakegu Krushev'en agintarizata urteak ez dirala alperrik pasa. Ez dala Krushev ainbeste urtetan agintaritzan alperrik egon.

Bere bizitzaren barruan Krushev'ek naiko gauza gogor egin zituau gure idurirako. Ez dezagun ahaztu Hungria'ko erreboluzioa izan zanean Krushev Errusia'ko komunista partiduaren sekretario zala. Baiñan ala ere alfortu bearra dut, alforteta orrek bateren baten madarikazioak nereganatzen baldin ere. Krushev gizon simpatico zela nerretaz. Ez zeuzkan ideia ta pentsamenduetarik berearekin batera komunismoaren barruan liberalismo baten aldeak sartu ziralako baizik. Baserirrik benetakoak bere izaneran, komunista militantean uze gusietan, estadu-gizon aundi, eta ala ere bere ideiek berrietzeko prest zegoana. Ez zan dogmatiko utsi utsi. XX'garren gizaaldian izan da garai bat munduaren itxaropen audienak zabaldu dituan. Garai ortan lru gizon aundiak alegiafiki egin dituzten beren indarrak berrietzeko, eta ahal izan ezker elkar-izketan jartzeko. Kennedy munduko kapitalista estadu audienarekin, Krushev munduko komunista estadu aurreratuarekin eta Joan XXIII'gna, munduko erlijio zabalarenekin.

Iruurak ez dituzte agintarizata urte luzejak izan, baiñan eren dute azia indar aundi du, alik eta gaurko alperrik gaitzen uze ez baldin ba ditugu. Ba liteke gaur eguneko aldatetak auek aze oiek alperrik gaitzea.

Erreinu Batuan berri azkenen laboristak irabazi dituzte elezioak. Jainkoa'ri eskerrak esango nuke, eta Jainkoa politikari sartu bear ez dugun ezker, esan dezagun laboristak irabazi dutela demokraziari eskerrak.

Ba dakit laboristak eta konserbadoreak ez dutela diferentzi audirik bere pentsamendu ta politikari. Konserbadoreak ordea amairu urte zemakitzan gobernuan eta oso santua izanda ere gobernuak, agintarizata bere arriksuak ba ditu, agintzea geiegi gustatzea alegia. Gaiñera laboristak galdu izan bazuten lur jota gedituko ziran eta zail izango zitzaizen berriro burua jasotzea. Ez da beraz arritzekoa, demokrazia bezela bildur izatea laboristak gaitzerekin. Irabazi dituzte elezioak baiñan estuegi, lasai ez.

Makia bat pentsakizun ematen ditu laboristak botuak bereganatzeko nola ibilli diran ikusteak. Erdi aldeko klasea bereganatzen izan dituzten lanak ikusteak. Ba liteke orrek beste erakusizun bat ekartzea gaurko politikoiak, alegia sozialista lengo bezela izaterik ez dagola ta ea botua ematea... legez bearezkoa ez ote liteken egin bear. Belgika'n ala da ta anglo politikoiak gero ta geroago pozikago daude bein eman zuten lege orregatik.

Bestela gero ta geroago botu emaille gutxigo izango lirakelako. Laboristak ori zuten bildurrik aundiña: botu emaille gutxi izatea. Zenbatek ezin dute ori konprenitu. Botuak libre emateko garalen zal ta beste alderditan ainbeste balloko eskubidea dutenak eskubide ori ezertan ez edukitzea.

Eta azkenik Mao. Naiko poz artu izango dituzte azkeneko aste onan. Alde batetik Krushev bere etsai amorratua galdu da ta bestetik bere atomika bomba lertu erazi dute chinoak. Beraz komunismoaren barruan eta berealaxe mundu guzitan naiko aldateta ikusi bearean arkitzen gera. Bear bada komunisten artean ikusten ditugun itxi-miki ta asarreak erakusten dituzte onden komunismoaren errotetako nundi etorri ditek. Komunismoa aseratik eta jatorriz nazio-arteakoa zan eta izandu da. Ta bere frakasorik audienak nazio-arteakoa ez izatearekin batera etorri zaliko. Europa'ko lengo gertarearen asieran sozialista partidu bakoitzak abertzale biurtu ziralako. Orain, lengoz Stalin erusit abertzale pururak egin zalako ta geroztik nazio bakoitzeko komunismoak bere bide berezia arkitu nai dualako ta China ta Errusia'ren arteko burrua dalako. Ortarako Tojlati'k eriotza aurretik egin zuan idazkia irakurri besterik ez daukagu.

Izango dira orain esango dutenak: Kennedy, Joan XXIII, Krushev, alik ziran, alik, garalak... eta gaurko egunean lan egitea, justiziarean, pakearen eta askatasunaren alde lan egitea ahaztuko zaienak.

BIKARDO ARREGUI

SAN BLAS, SAN BLAS,
SAN BLAS...

Udan kendu elguk egarria;
Neguan osatu ezarria. Ze
edari, SAN BLAS edarria
Gozoa eta maitagarria.

Gorostiaga eta Goitiso

BILBO